

LIXUA

-Kontatuko didazu nola egiten zen lixua lehen?

Bai, lenbixko, patzen zen konporta. Gio, konportai jartzen zidaizkion arbak, beittin. Arbak.

-Arbak zer dira?

Ramas, ramas, gio... arropak jartzen zen, jaonatu iturrin, jaonas ongi xamar jarri ta denak, lenbixko maineriak gio arropa txeiak dena zurie, zurie ta nabar antza bai bino kororeskoik ez.

-Kolorezkoekin zer egiten zen

Jaunada bestelas. Ta gio harrei patzen zidaion hauspartana esaten zidaion. Larri bet, lodie, tela lodi bet, lenau chuneskoak izaten zen: Ehunkie, errokan inta. Ta halakoa, lodi bet jarri ta, han botatzen zen hautse, sueko hautse... garbie behar zun, hola, gaztainen kaskaleik gabe-ta, mantxak ematen baittu, ta gio harrei ure bota. Ure patu iosten, laatzian ta

berotus, hartzen zen, ur hori ateatzen zen txorrotatiken bazinera eta handiken hustu beroa ta beis ur ore atiatzen zena beis berotzeko pertzera bota. Ta holaxen-holaxen iosten zen, majo, garbi garbittoa gaina.

-Eta zenbat irauten zuen edo?

Zenbat iraun? Pues, gaur bezala jaonatu ta atsaldian prestatu ta iosi ta bihamonian iturrirre beis, hore aklaratzia .

-Eta lixitturria edo bada hemen, ez?

A... bai, bino, hortas enaiz, gutti akordatzen naiz ni, lenau joaten zela o bai, bakarron bat o beste, leku ttikittoa zen ore, akaso lenau.

-Ta zuek etxean eiten zenuten o?

Guk, labadorian, labadorea joan-ezautu dut nik beti, beti labadorian.

-Ta beste lekuri ez zen?

Ez, ez besteik etzen.

-Ta berotzeko ta ere labadorean edo etxean?

Ez, berotzeko itxian, itxian, itxian, jaonatu ta ekarri, ta gio,
latzea, latza o esaten zaionai zintzilikan patu pertza, ta han berotu ure ta
handiken bota.

-Eta gero berriz aklaratzeko edo?

Itturrire, itturrire, bihamonian.

-Ta orduan, hori egiten zen...

Hori zen dena, itten zena.

-Hilabeteoro edo egunero edo?

Ez eunero ez, hilatian behin edo, juntatzen zen arropa
franko, familia handia baldin bazion ta dena batian in ta juntatzen zen
arropa asko. Goain erraxat da labadoran astian astekoa inta...

-Ze oihal klase erabiltzen ziren?

Ehunkie...

-Ta hori zer zen?

Ta hore errokan itten zuten lenau gue aman denboan ta...nik
ezautu nun gaztetan dena halakoa

-Ez zen algo doirik?

Ta etzen goain bezala mainderiak, bueno bazen
mainderiak bino etzen usetzen, hoietatiken bazen majoak izaten zen
batzuk puntillekin ta, bazen ordun e, ben letra, letra gorrikin markatuik eta
maindere majoak izaten zen, ta gustora itten zen lo mandokoak
arraskatus.

-Eta zer zen mandokoa ?

Mandokoa atteatzen da sueko berokikin aztaletan ta
biatzetan ta eskutan e bai, kako[?] gorri gorri betzuk, asanahi emateutenak ta
molestatzeutenak

-Ta zertarako ziren?

Haiek, gaitz bet bezala zen, ta desaparezitzen zen,
baatxurikin ta inta.